

## Lehen Aukera 2014

(2. gidaliburua)

# ENPRESARENTZAKO INFORMAZIOA

### Zer da Lehen aukera?

Euskal enpresetan gazte langabeak kontratatzeko laguntzen deialdia da.

### Zer enpresa eta erakundek egin ahal dituzte kontratuak?

Kontratuak egin ahal izango dituzte enpresa pribatuek, haien forma juridikoa edonolakoa izanda ere, banakako enpresaburuek, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, bai eta elkarte eta fundazioek ere, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Helbide sozial eta fiskala EAEn izatea, edo lantokia EAEn izatea.
- Zuzenean edo zeharka administrazio publiko baten edo batzuen partaidetza % 50etik gorakoa ez izatea.
- Deialdi honen bidez kontratatuko den postuan enplegurik ez suntsitu izana, ez kontratu berria egin aurreko urtebetean, ez eta diruz lagundutako kontratuaren iraunaldian ere.
- Enpresaren legezko ordezkariari deialdi honen babesean kontratatzeko asmoa jakinarazi izana. Langileen legezko ordezkariak ez badago, idatziz jasotzea.
- Deialdian deskribatutako laguntzen erregimenetako legez kanpoko laguntza bateraezinen bat ez jaso izana.
- **Kanpoan** geratzen dira erakunde autonomiadunak, sozietate publikoak, eta Administrazioaren edozein eremuren mende dauden edo haiei lotuta dauden erakundeak, bai eta aldi baterako laneko enpresak ere, eskueran jartzeko enpleguetarako izanez gero.

### Zer kontratu egin daitezke?

Praktikaldiko lan-kontratuak dira

- Ikasketa-mailaren araberako lanpostuak betetzekoak.
- Kontratuak egin aurreko azken 6 hilabeteetako batez bestekoan enpleguaren sortze gordina dakartenak.
- Lanaldi osoan edo lanaldi partzialean jardutekoak, baina inolaz ere ez lanaldiaren % 70 baino gutxiagokoak.
- Titulazioaren arabera ezarritako gutxieneko urteko ordainsari gordina konplitzen dutenak.
- Titulazioa, hasteko eta amaitzeko eguna, iraunaldia eta beteko den postua jasotzen dituztenak.
- Lanpostuko jardunaren jarraipena egiteko arduradun bat izendatua dutenak.

### Zer kontratu ezin daitezke egin?

- Enpresako arduradunekin bigarren mailara arteko ahaidetasuna duten pertsonen kontratazioak.
- Lanbideren beste diru-laguntza batzuk jasotzeko aukera dutenak.
- Hilean 1.051 euro baino gutxiagoko ordainsari gordina dutenak, 1. taldeko titulazioen kasuan.
- Hilean 872 euro baino gutxiagoko ordainsari gordina dutenak, 2. taldeko titulazioen kasuan.

### Laguntzak eskatzeko epea

- Urriak 3

### Laguntzen zenbatekoak

2.450 eurotik 3.620 eurora bitarteko laguntzak, eta % 10 gehiagokoak 12 hilabeteko kontratua eginez gero.

	Hileko soldata gordina	Diru-laguntza
1. bitartea	872 eurotik 1.050 eurora	2.450,00
2. bitartea	1.051 eurotik 1.290 eurora	2.950,00
3. bitartea	1.290 eurotik gora	3.620,00

### Zer prozedura baliatu behar du enpresak?

Enpresak Lanbideri aurkeztu behar dio eskabidea (II. eranskineko dokumentu guztiak beteta bidali behar ditu, eta onarpenaren zain egon). Iritsitako ordenaren arabera emango dira laguntzak, aurrekontua agortu arte. Aldizkarian jasota ez badago ere, banku-erakundeak emandako hirugarrenen alta erantsi behar da (enpresaren kontu korrontea egiaztatzen duen agiria).

Laguntza onetsi ondoren, IV. eranskina bete beharko du eskaintza bakoitzeko, eta Ikaslani eta erreferentziazko zentroari jakinarazi beharko dio, Lanbideren sistema informatikoan erregistratzeko eta identifikatzeko.

Ondorengo egunetan, eskatutako profilararen araberrako hautagaien curriculumak jasoko ditu.

Hautagai gisa bidalitako pertsonekin egindako kontratuentzat soilik emango dira diru-laguntzak.

Enpresak praktikaldiko lan-kontratua prestatuko du, eta 10 eguneko epean, gehienez jota, erreferentziazko zentroari, Iksaslani eta Lanbideri helaraziko die.

Izapide horiek egin ostean, onetsitako laguntzaren % 53,6 jasoko du.

Hasiera batean kontratatutako pertsonak ordezkatzeko aukera izango du gero.

Kontratua amaitzean, hilabeteko epean, gehienez jota, eta betiere uztaillaren 31 baino lehenago (6 hilabeterako kontratuetan) edo abenduaren 15a baino lehenago (12 hilabeterako kontratuetan), amaierako memoria bat egin beharko du, kontratatutako pertsonen zerrenda, eta jaso dituzten nominak adierazita.

Langileari egiaztagiria bat emango dio, kontratuaren iraunaldia eta egindako jarduna zehaztuta.

### Giltzarrizko daten zerrenda

### Urriak 3, Lanbideri laguntzaren eskabidea aurkezteko gehienezko epea

**7 egun, gehienez jota, Ikaslaneri jakinarazteko laguntza onetsi dutela**

**Azaroak 21, kontratua egiteko gehienezko epea**

**10 egun, gehienez jota, Ikaslaneri eta lanbideri jakinarazteko kontratua egin duela**  
**Kontratua amaitzean, hilabeteko epea du, gehienez jota, amaierako memoria**  
**entregatzeko, betiere 2015eko uztailaren 31 baino lehen edo abenduaren 15a baino**  
**lehen aurkeztu beharko du, kontratuaren iraunaldiaren arabera.**